El estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, en este punto, deberá exponer los criterios y objetivos concretos que se han planteado en la Modificación, tanto los generales como los estrictamente ambientales, y analizar su adecuación a los criterios y objetivos generales de sostenibilidad y protección y mejora ambiental mencionados en los apartados 3 y 4 de este Documento de Referencia.

Hautabideen azalpenari, haien azterketari eta

Por lo que se refiere a la descripción de las

haietako bakoitzaren barruan eraginak izan ditzaketen jarduketen identifikazioari dagokienez, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak hauxe baino ez du egingo oraingoz: aurreko paragrafoan iruzkindutako helburuak lortzeko asmoz, AASSen Aldaketa Jakina lantzerakoan kontuan hartu diren hautabideak laburbilduta eta trinkotuta aurkeztu (hala nola, bestelako kudeaketa jarduketak, kokapenekoak, erabileren eta baliabideen esleipenekoak, eta izan daitezkeen esku-hartzekoak, edota bestelako ekarpenak eta banaketa espazialak, helburu horien arabera), txosten honetako 5.4 atalean zehaztutakoaren arabera egin behar den azterketa xeheagoaren arabera, betiere.

**5.2.– Beste plan edo programa batzuekiko elkarreraginen analisia**

AASSek antolatutako eremuan edo alderdietan eragina duten planak eta programak identifikatu beharko dira. Proposatutako Aldaketak plan eta programa horiekin duen bateragarritasuna aztertu eta egiaztatu beharko da. Gutxienez honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolaketako Jarraibideak (LAJ).
- Beasain-Zumarragako (Goierriko) Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (behin-behinean onartutakoa).
- EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolaketako Lurraldearen Arloko Plana
- EAEko Gune Hezeen Lurraldearen Arloko Plana.
- Nekazaritza-Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana (behin betiko onartzeko dagoena).
- Kultura Ondarearen Lurraldearen Arloko Plana (Aurrerapena).
- EAEko Uholdeei Aurre Egiteko Plan Orokorra eta haren berrikuspeneko dokumentuak.
- 1994-2030eko Euskadiko Baso Plangintza.
- Zegamako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana (Aldaketa lerro estrategikoetan ezarritako helburuei egokitzea, eta haren zehaztapenek Tokiko Ekintza Planean definitutako ekintzak lortzeko ekarpenak egitea).
- Ur-ipurtatsa kudeatzeko plana.
- EAEko korridore ekologikoen sarea.
- **EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa.**
- EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002-2020). EAEko Ingurumen Programa Orokorra (2007-2010).
- Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana 2008-2012.
- Gipuzkoako uraren erabilera iraunkorrari buruzko jarraibideak.

alternativas, su análisis e identificación de las actuaciones de cada una de ellas que pueden dar lugar a impactos, el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental se circunscribirá en este momento a presentar preliminarmente y de forma resumida y sintética, a expensas del análisis más pormenorizado que debe de efectuarse de acuerdo con lo especificado en el apartado 5.4 de este informe, las distintas alternativas que se han contemplado durante la elaboración de la Modificación Puntual de NNSS para conseguir los objetivos comentados en el párrafo anterior.

**5.2.– Análisis de las interacciones con otros planes o programas**

Se identificarán los planes y programas que afecten al ámbito o a los aspectos ordenados por las NNSS. Se analizará y se justificará la compatibilidad de la Modificación propuesta con dichos planes y programas. Se tendrán en cuenta, al menos, los siguientes:

- Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (DOT).
- Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) (aprobado provisionalmente).
- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial Agroforestal (pendiente de su aprobación definitiva).
- Plan Territorial Sectorial del Patrimonio Cultural (Avance).
- Plan Integral de Prevención de las Inundaciones de la CAPV y los documentos de revisión del mismo.
- Plan Forestal Vasco 1994-2030.
- Plan de Acción de la Agenda Local 21 de Zegama (adecuación de la Modificación a los objetivos establecidos en las líneas estratégicas y contribución de sus determinaciones al logro de las acciones definidas en el PAL).
- Plan de gestión del visón europeo.
- Red de corredores ecológicos de la CAPV.
- **El Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV.**
- Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020. Programa Marco Ambiental 2007-2010.
- Plan Vasco de Lucha Contra el Cambio Climático 2008-2012.
- Directrices para la Utilización Sostenible del Agua de Gipuzkoa.

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Alorreko Plana (Aurrerapena).
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturei buruzko Lurraldearen Alorreko Plana (Aurrerapena).
- **Euskadiko Energia Politika 2010.**

- PTS de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (Avance).
- PTS de Infraestructuras de Residuos de Gipuzkoa (Avance).
- **Estrategia Energética de Euskadi 2010.**

**5.3.– Planaren eraginpeko eremua aztertu, diagnostikatu eta baloratzea.**

Aldaketak eragindako areen ingurumen ezaugarrien azalpena egin behar da, baita ere ingurumen-osagai desberdinen artapen egoerarena, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak eranskineko 3. atalean ezarritakoa edukiak garatuz. Azterketak, gainera, ingurumenari dagokionez udalerriak dituen arazo aipagarrienak identifikatu beharko ditu. Ikuspegi horrekin, gutxienez alderdi hauei buruzko planoak erantsiko zaizkio, eskala egokian:

- Murgisarriko Landa Parkeari dagokionez, landaredia eta lurzoruaren erabilerak, interes komunitarioko habitatak eta beste hainbat habitat baliotsuak, baso autoktonoak, kasu.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, edota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituztenak.
- Uholdeak jasateko aukera 11 (Olaberria II) eta 1 (Erdigunea) areei dagokienez.

**5.3.– Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el Plan**

Se describirán las características ambientales de las áreas afectadas por la Modificación y el estado de conservación de los distintos elementos del medio, desarrollando los contenidos establecidos en el apartado 3 del anexo del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. El estudio deberá identificar, además, los problemas medio ambientales que sean relevantes para el conjunto del Municipio. Contendrá cartografía a una escala adecuada, al menos, de los siguientes aspectos:

- En el caso del Parque Rural de Murgisarri, vegetación y usos del suelo, hábitats de interés comunitario y otros hábitats valiosos, tales como bosques autóctonos.
- Suelos potencialmente contaminados o con actividades potencialmente contaminantes del suelo.
- Inundabilidad en el caso de las áreas 11 (Olaberria II) y 1 (Centro).

**5.4.– Teknikoki arrazoizkoak diren alternatibei buruzko ingurumen azterketa. Hartutako erabakia arrazoitzea.**

Planaren helburuak lortzeko aintzat hartu diren hautabideak aztertu behar dira ingurumenaren ikuspegitik. “0” hautabidea edo gaur egungo plangintza mantentzea nahitaez aztertu beharreko hautabideetako bat da.

Aldaketa Jakinaren helburuak betetzeko kontuan hartzen diren hautabide desberdinen azterketa konparatiboa egin behar da, oinarritzat hartuta haien eragin nagusiak, hau da, aurreko atalean azaldutako ingurunearen osagaietatik modu esanguratsuagoan eta bereizgarriagoan erasandakoen gainean sortzen dituztenak.

Azkenik, behin betiko hartzen diren irtenbideak arrazoituko dira, eta txosten honetako 3. eta 4. ataletan ezarritako iraunkortasun eta ingurumen babeseko irizpide eta helburu orokorrekiko duten koherentzia balioztatuko da.

**5.4.– Examen ambiental de las alternativas técnicamente razonables. Justificación de la solución adoptada.**

Se analizarán, desde el punto de vista ambiental, las diferentes alternativas de ordenación consideradas para alcanzar los objetivos buscados, debiendo incluir preceptivamente la “alternativa 0” o de mantenimiento del planeamiento actual.

Se efectuará un análisis comparativo en relación con los principales impactos que, de acuerdo con lo especificado en el siguiente apartado de este informe, generan las diferentes alternativas que se barajen para el cumplimiento de los objetivos de la Modificación Puntual en aquellos elementos del medio descritos en el apartado anterior, y que son afectados de forma más significativa y diferencial.

Finalmente, se justificarán las soluciones que definitivamente se adopten, valorando su coherencia con los criterios y objetivos generales de sostenibilidad y protección ambiental establecidos en los apartados 3 y 4 de este informe.

Jarduketa aurreikusiei buruzko aldez aurreko kontsulten dokumentutik ateratzen den informazioan oinarriturik, gutxienez alderdi hauek sartu beharko dira hautabideen ingurumen azterketan:

1.- **Murgisarriko Parkean** turismo ostatuen eraikuntza ahalbidetzen duen aldaketari dagokionez, hautabide desberdinak aztertuko dira, ostatu kopuru, kokapen eta tipologiari dagokienez, eta hautabide bakoitzak Erreferentziako Dokumentu honetako 4. atalean deskribatutako ingurumeneko interes bereziko baliabide eta guneen zein ingurumen gaineko eraginaren ebaluaketa bateratuaren azterketa egiterakoan identifika daitezkeenen gainean izan ditzaketen erasana alderatuko da.

2.- **Hiri lurzoruan eta lurzoru hiritargarrian** planteatutako jarduketei dagokienez, izan litezkeen hautabide desberdinek, 0 hautabideak edo eskurik ez hartzekoak barne, 3 atalean planteatutako ingurumen irizpide estrategikoak betetzen laguntzen duten modua aztertu beharko da, lurzoruaren okupazioa, paisaiarekiko erasana, biztanle kopuruan izan litekeen gehikuntzatik ondorioztatutako eraginak (ur eskaeraren, hondakin uren, hondakinak sortzearen gehikuntza), energiaren kontsumoa eta mugikortasunaren sorkuntza hautabideetako bakoitzean alderatuz.

**5.5.– Planteatutako jarduketen eraginak identifikatu eta baloratzea.**

Identifikatu eta baloratu egin behar dira AASSen Aldaketa Jakinak planteatutako jarduerek ingurunearen osagaien gainean dituzten ingurumen eraginak. Identifikatze eta baloratze hori ez da mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak zuzenean izandako eraginetara. Aitzitik, honelako eraginak ere kontuan hartuko ditu:

- Proposatutako antolaketak ingurumenean zeharka izandako eraginak (esate baterako, etxebizitza gehiago dela eta, hondakin ur gehiago sortzea).
- Erabilera eta jardueren arautzetik ondorioztatutako eraginak (esate baterako, lurzoru ez-hiritargarrian jarduerak erregulatzeko arauetan izan litekeen aldaketak sortutakoak).

Iragarri eta identifikatze aldera, 183/2003 Dekretuaren eranskineko 5.2.2. atalean zehaztutakoaren arabera egituratu ahal izango dira ingurumen eraginak.

Identifikatutako ingurumen eragin bakoitzaren

En base a la información suministrada en el documento de consultas previas sobre las actuaciones previstas, se considera necesario que el examen ambiental de alternativas incluya, al menos, los siguientes análisis:

1.- Respecto a la modificación que posibilite la construcción de alojamientos turísticos en el **Parque de Murgisarri**, se analizarán diferentes alternativas en cuanto a número, ubicación y tipología de los alojamientos, comparando la afección de cada una de las alternativas posibles sobre los recursos y espacios de especial interés ambiental descritos en el apartado 4 de este Documento de Referencia y los que puedan ser identificados durante la elaboración del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

2.- Respecto a las actuaciones planteadas en **suelo urbano y urbanizable**, se deberá analizar el modo en que las diferentes alternativas posibles, incluida la alternativa 0 o de no intervención, contribuyen al cumplimiento los criterios ambientales estratégicos planteados en el apartado 3, comparando la ocupación de suelo, la afección al paisaje, los impactos derivados de un posible aumento en el número de habitantes (incremento de la demanda de agua, de las aguas residuales, de la generación de residuos), el consumo de energía y la generación de movilidad, en cada una de las alternativas.

**5.5.– Identificación y valoración de impactos de las diferentes actuaciones planteadas**

Se identificarán y valorarán los impactos ambientales de las actuaciones planteadas por la Modificación Puntual de NNSS sobre los diferentes elementos del medio. La identificación y valoración no se limitará a los impactos directos causados por la transformación física del ámbito ordenado, sino que, asimismo, deberá contemplar los producidos por:

- Impactos ambientales indirectos causados por la ordenación propuesta (por ejemplo, el incremento de las aguas residuales debido a un aumento en el número de viviendas).
- Impactos derivados de la regulación de usos y actividades (por ejemplo, los causados por la posible modificación de las normas reguladoras de actividades en suelo no urbanizable).

De cara a su predicción e identificación, los impactos ambientales podrán estructurarse según lo especificado en el apartado 5.2.2 del Anexo del Decreto 183/2003.

Cada uno de los impactos identificados deberá ser

ezaugarriak zehaztu eta tamainan nahiz intentsitatean baloratzeko garaian, ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko 1988ko irailaren 30eko 1131/88 Errege Dekretuaren I. eranskinean agertzen den terminologia erabili beharko da. Horretarako, lehenbizi, kaltea egoki deskribatuko duten adierazleak definitu behar dira (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzaileak, kuantifikagarriak eta identifikaerrazak), eta, ingurumen kalitatearen helburuak xedetzat hartuta, eraginari dagozkion gutxieneko muga onargarriak finkatu behar dira, indarrean dagoen legeria erreferentziatzat hartuta, baita kasuan kasuko organo eskudunen jarraibideak ere.

Antzemandako eraginen esanahia zehazteko, 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, hainbat plan eta programak ingurumenean dituzten eraginen ebaluaketari buruzkoak, II. eranskinean zein 2008ko urtarrilaren 11ko 1/2008 Errege Dekretu Legegileak, proiektuen ingurumen eraginaren ebaluaketaren Legearen testu bateratua onartzekoak, III. eranskinean ezarritakoa jarraituko da.

Halaber, proposatutako jardueretako batzuek Oria Garaiko Interes Komunitarioko Lekuan eragina izan balezakete, ingurumen eraginen ebaluaketa Habitaten 92/43/CEE Arteztarauaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, *Habitatei buruzko 92/43/CEE Arteztarauaren 6. artikuluaren 3. eta 4. ataletako xedapenei buruzko Gida metodologikoan ezarritako ildoei jarraiki*.

**5.6.– Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena**

Hartu beharreko neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak hartu beharko dira, Aldaketan aurreikusitako jarduketa eta arauen ondorioz ingurumenean izan daitezkeen eraginak murrizteko edo orekatzeko, 183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6. atalak dioenaren arabera. Lanak egin bitartean ingurumenaren gainean ahalik eta eraginik txikiena izateko neurriak ere jaso beharko dira.

Hasierako onarpen dokumentuak jasotzen dituen jarduketa eta zehaztapen bakoitzerako, Aldaketak neurri zuzentzaileak jasoko ditu, honako hauek, gutxienez, kontuan hartuz:

- Oria eta Olaran ibaietako ur, ubide eta ibaiertzen gaineko erasanak saihestea. Ibai inguruak mugatzea eta babes egokia ematea, EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldeko Alorreko Planean ezarritako irizpideak aplikatuz.
- 

caracterizado y valorado en su magnitud e intensidad de acuerdo con la terminología expresada en el Anexo I del R.D. 1131/1988, de 30 de septiembre, de evaluación de impacto ambiental. Para ello, se definirán previamente los indicadores de impacto (representativos, relevantes, excluyentes, cuantificables y de fácil identificación) que describan adecuadamente la afección y unos objetivos de calidad ambiental que fijen los límites mínimos aceptables respecto al impacto, tomando como referencia la legislación vigente, así como las directrices de los órganos competentes, en cada caso.

Para determinar la significación de los impactos detectados se seguirá lo establecido en el anexo II de la Ley 9/2006 de 28 de abril, sobre la evaluación de los efectos de determinados planes y programas sobre el medio ambiente y en el anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley evaluación de impacto ambiental de proyectos.

Asimismo, en el caso de que algunas de las actuaciones propuestas pudieran afectar al Lugar de Interés Comunitario del Alto Oria la evaluación de impactos ambientales, se realizará conforme a lo establecido el artículo 6 de la Directiva 92/43/CEE de Hábitats, siguiendo las directrices establecidas en la *Guía metodológica sobre las disposiciones de los apartados 3 y 4 del artículo 6 de la Directiva sobre hábitats 92/43/CEE*.

**5.6.– Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias**

Deberán adoptarse las medidas protectoras, correctoras y compensatorias necesarias para reducir o compensar los impactos ambientales que se puedan derivar de las diferentes actuaciones y regulaciones previstas en la Modificación, conforme al apartado 6 del anexo del Anexo del Decreto 183/2003. Además deberán recogerse las medidas para minimizar los impactos ambientales en la fase de obras.

Para cada una de las actuaciones y determinaciones que recoja el documento de aprobación inicial, la Modificación recogerá las medidas correctoras que tendrán como objeto al menos las siguientes:

- Evitar afecciones sobre las aguas, cauces y riberas de los ríos Oria y Olarán. Delimitar los espacios fluviales y dotarlos de una adecuada protección, aplicando los criterios establecidos en el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.

- Uholdeak jasateko arriskua duten guneak mugatzea.

- Intereseko landarediari eta faunari ez erasateko edo ahalik eta gutxiena erasateko neurriak, baita espezie exotikoak hedatzea saihestekoak ere.

- Jarduketek hondatutako edo erasandako aldeak paisaia aldetik lehengoratzea.

- Kutsatutako lurzoruei buruzko 1/2005 Legean ezarritako irizpide eta prozedurak inbentarioan 11 Arean (Olaberria II) kutsatuta egon litekeen partzela gisa jasotakoan edo kutsadura zantzuak antzematen diren beste batzuetan aplikatzea.

- Hondakin urak jaso eta tratatzeko sistema egokiak ezartzea, hiri lurzoruan edo lurzoru hiritargarrian aurreikusitako eraikuntzetan (horietan saneamenduko udal sistemari lotu beharko dira) zein lurzoru ez-hiritargarrian (horretan, eraikuntzek saneamenduko sarearekiko lotura egitea ezinezkoa denean, hondakin urak tratatzeko sistema autonomo egokia eduki beharko dute).

- Energia eraginkortasun eta natura baliabideak (lurzorua, ura, etab.) aurrezteko irizpideak urbanizazio eta eraikuntzan aplikatzea, era horretan:

  - Hiritartze lanetan ahal dela mugatu egin behar dira urarekiko iragazkorrak ez diren zoladura guneak, terrenoaren iragazpen naturala mantentzea komeni baita. Oinezkoen guneetan eta ibilgailuen sarreretan euri urarentzako material iragazkorrak erabiltzea proposatuko da.

  - Eremuetako gune publikoetan eta eraikin berrietako gune komunetan kontsumo gutxiko eta argi-kutsaduraren kontrako argi sistemak jarri behar dira.

  - Eguzkiaren energia-eraginkortasuna hartuko da kontuan egin behar diren eraikinen orientazioak zehazteko, eta, horrela, hobeak izan daitezen bai energiaren erabilera (batez besteko tenperatura handiagoa, berogailuen kontsumo txikiagoa, eta abar.) bai eguzki argiaren aprobetxamendua (elektrizitatearen kontsumo txikiagoa).

  - Inguruaren ingurumen ezaugarriak kontuan hartuta, eta eraikinak inguruko paisaiari

- Delimitar las zonas que presenten riesgo de inundación.

- Evitar y minimizar la afección a vegetación y fauna de interés y evitar la expansión de especies exóticas.

- Restaurar paisajísticamente las áreas degradadas o afectadas por las actuaciones.

- Aplicar los criterios y procedimientos establecidos en la Ley 1/2005, de suelos contaminados en la parcela inventariada como potencialmente contaminada en el Área 11 (Olaberria II) o en otras en las que se detecten indicios de contaminación.

- Implantar sistemas adecuados para la recogida y tratamiento de las aguas residuales, tanto en las edificaciones previstas en suelo urbano o urbanizable (donde deberán ser conectados al sistema municipal de saneamiento), como en suelo no urbanizable (donde las edificaciones deberán contar con un adecuado sistema autónomo de tratamiento de sus aguas residuales cuando no sea posible la conexión con la red de saneamiento).

- Aplicar criterios de eficiencia energética y de ahorro de recursos naturales (suelo, agua, etc.), en la urbanización y edificación, de modo que:

  - En la urbanización de los diferentes ámbitos se procurarán limitar las áreas pavimentables no permeables, de forma que se tienda a mantener la capacidad de filtrado natural del terreno. En los espacios peatonales y de accesos rodados se planteará la utilización de materiales permeables a la lluvia.

  - En los espacios públicos de los diferentes ámbitos y en los espacios comunes de las nuevas edificaciones se utilizarán sistemas de iluminación de bajo consumo y que, asimismo, eviten la contaminación lumínica.

  - Se tendrá en cuenta la eficiencia en la captación solar del sector para definir las orientaciones de las edificaciones de nueva creación y se mejore su comportamiento energético (mayor temperatura media, menor consumo de calefacción, etc.) y el aprovechamiento de la luz solar (menor consumo de electricidad).

  - Teniendo en cuenta las características ambientales del entorno y con el objetivo de

egokitzeko eta ikusmen trabak saihesteko, udalerriko eraikuntza tipologiarekin eta estetikarekin bat datozen eraikuntza baldintzak zehaztuko dira (materialak, koloreak, morfologia, altuerak, bolumenak, eta abar).

- o Eraikinetako fatxaden tratamendua desberdina izatea komeni da, orientazioaren arabera: iparraldekoa itxiagoa eta isolatzaileagoa, eta hegoaldekoa irekiagoa eta beira gehiagoz hornitua.
- o Eraikuntzan erabiliko diren materialak ahal den isolamendu termikorik handiena izango dute eta, halaber, ahal den iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak izango dira.
- o Eraikinetako barne antolamenduan, gehien erabiliko diren tokietan eguzkia eta argi naturala ahal den guztia aprobetxatzeko moduko espazio banaketa egingo da. Hala badagokio, barne antolamendu horrek ere kontuan izan behar du zaratarekin egon daitezkeen arazoak; horregatik, zaratarekiko sentikortasun handiena duten guneak (logelak, egongelak, eta abar) zarata sortzen duten fokuetatik ahal den urrunen jarri behar dira.
- o Eraikuntza Kode Teknikoaren arabera, eguzki atzitzaileak eta metagailuak ezarriko dira ur beroaren edota berokuntzaren banaketarako, eta ura aurrezteko sistemak jarri ote daitezkeen aztertuko da.
- o Hiri hondakinen gaikako bilketarako gune egokiak aurreikusiko dira.
- o Eraikin berrietan ura eta kontsumo energetikoak aurrezteko sistemak ezartzea.

- Erasandako baliabideak lehengoratzeko neurriak planteatzea, konpentsatzeko neurriak ezarriz, esate baterako:
  - o Gaur egun iragazgaitzak diren azalerak naturalizatzea, hiritartu bitartean azalera iragazgaitzak sortzea konpentsatzeko.
  - o Lehengoratzeko neurriak hondatutako guneetan, Aldaketaren ondorio diren jarduketek intereseko habitatetan duten eragina konpentsatzeko.

integrar las edificaciones en el paisaje de la zona y se eviten las intrusiones visuales, se definirán unas condiciones edificatorias (materiales, colores, morfología, alturas, volúmenes, etc.) que estén en consonancia con la tipología edificatoria y estética del municipio.

- o Las fachadas de los edificios tenderán a tener un tratamiento diferenciado según la orientación: más cerrado y aislado al norte y más abierto y acristalado al sur.
- o Se procurará que los materiales constructivos a utilizar en las edificaciones tengan un grado alto de aislamiento térmico y sean lo más duraderos y lo menos contaminantes posibles.
- o La ordenación interna de los espacios de los edificios procurará estar en consonancia con una distribución que optimice las condiciones de iluminación y aprovechamiento solar en los espacios que van a ser más frecuentados. En su caso, esta ordenación interna también tendrá en cuenta los posibles problemas de ruido existentes, de forma que los espacios más sensibles al ruido (habitación, salón, etc.) se localicen lo más lejanos posible a los focos emisores de ruido.
- o De acuerdo con el Código Técnico de Edificación, se establecerán captadores solares y acumuladores para el suministro de agua caliente sanitaria y/o calefacción, y se estudiará la posibilidad de implantar sistemas de ahorro de agua.
- o Se preverán espacios adecuados para la recogida selectiva de residuos urbanos.
- o Establecer sistemas de ahorro de aguas y consumos energéticos en las nuevas edificaciones.

- Plantear medidas de restitución de los recursos afectados mediante la implantación de medidas compensatorias, como por ejemplo:
  - o Naturalización de superficies actualmente impermeables que compensen la creación de superficies impermeables durante las fases de urbanización.
  - o Medidas de restauración en áreas degradadas como compensación de la afección de hábitats de interés por actuaciones derivadas de la Modificación.

**5.7.– Planaren eraginak eta ingurumen helburuak betetzen diren gainbegiratzeko programa**

AASSen Aldaketan proposatutako jarduketei dagokienez, helburua ingurumenaren kalitatea babestuko dela bermatzea da, eta, era berean, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketan proposatutako neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzea.

Horretarako, jarraipena egin behar zaien ingurumeneko sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatu, eta jarraipenaren adierazleak eta metodologia finkatu behar dira (datuak hartzeko estrategiak, muga edo erreferentzia mailak, maiztasuna, langileak, aurrekontua, aldian aldiko txostenak, eta abar). Horrela, identifikatutako eragin esanguratsu bakoitzaren eta proposatutako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen betetzearen jarraipena egin ahal izango da, baita haien eraginkortasuna ere.

Era osagarrian, adierazle multzo bat definitu beharko da ingurumen helburuak betetzearen jarraipena egin ahal izateko. Helburuen arabera, Tokiko Agenda 21eko iraunkortasun prozesuaren jarraipenean erabilitako adierazleak erabili ahal izango dira (Tokiko Agenda 21. 2003. IHOBE-ko adierazleen eskuliburuan definitutakoak), planeamenduko AASSen jarraipenerako berrikusterakoan hartutakoak, Hirigintza Planeamendua Iraunkortasun Irizpideekin. 2005. IHOBE izeneko argitalpenean proposatutakoak, edo Aldaketan planteatutako ingurumen helburuen arabera egokitzen diren beste batzuk.

Edonola ere, jarraipen adierazleen helburuak, atalaseak eta betetzeko irizpideak definituko dira, baita datuak hartu eta kalkulatzeko programa bat ere, hain zuzen ere, hirigintza kudeaketan bertan integratu edo Tokiko Agenda 21eko prozesutik garatu ahal izango dena, baina, edonola ere, AASSen Aldaketak adierazlearen bilakaeran egindako banan-banako ekarpena identifikatzea ahalbidetuko duena.

**5.8.– Laburpen dokumentua**

183/2003 Dekretuko eranskinaren 8. atalean xedatutakoaren arabera, laburpen bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta jendeak ondo ulertzeko modukoa emango duena, aurreko puntu guztietan bildutako informazioaren berri emateko. Dokumentazio grafikoa eranstea ere gomendatzen da, jendaurrean ikusgai jartzen denerako.

**5.7.– Programa de supervisión de los efectos del plan y del cumplimiento de los objetivos ambientales**

En relación con las actuaciones propuestas en la Modificación de las NNSS, el objetivo es garantizar la preservación de la calidad ambiental, así como el cumplimiento de las medidas correctoras y compensatorias propuestas en el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

Para ello, se identificarán los sistemas, aspectos o variables ambientales que deberán ser objeto de seguimiento, los indicadores de seguimiento que se fijarán y la metodología que se utilizará (estrategias de tomas de datos, niveles límites o de referencia, periodicidad, personal, presupuesto, elaboración de informes periódicos, etc.), de modo que pueda realizarse el seguimiento de cada uno de los impactos significativos identificados y del cumplimiento de las medidas protectoras, correctoras y compensatorias propuestas, así como la efectividad de las mismas.

Complementariamente, se definirá una batería de indicadores para poder realizar el seguimiento del cumplimiento de los objetivos ambientales. En función de los objetivos podrán ser utilizados los indicadores empleados en el seguimiento del proceso de sostenibilidad de la Agenda Local 21 (definidos en el manual *Indicadores de Agenda Local 21*. 2003. IHOBE), los que fueran adoptados para el seguimiento de las NNSS de planeamiento durante su revisión, los propuestos en la publicación *Planeamiento Urbanístico con Criterios de Sostenibilidad*. 2005. IHOBE u otros que se adapten a los objetivos ambientales planteados en la Modificación.

En cualquier caso, se definirán objetivos, umbrales y criterios de cumplimiento de los indicadores de seguimiento, así como un programa para la toma de datos y cálculo de los mismos, que podrá integrarse en la propia gestión urbanística o desarrollarse desde el proceso de Agenda Local 21 pero, en cualquier caso, permitirá identificar la contribución individual de la Modificación de las NNSS a la evolución del indicador.

**5.8.– Documento de síntesis**

Deberá redactarse un documento de síntesis según se establece en el apartado 8 del anexo del Decreto 183/2003, con información concisa y en términos asequibles al público en general para dar a conocer toda la información recogida en los puntos anteriores. Se recomienda asimismo la inclusión de documentación gráfica con fines de información pública.

**5.9.- Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena**

Hautabideen bideragarritasun ekonomikoari eta jasotako aldaketak aplikatzeak sor litzakeen eragin kaltegarriak prebenitu, murriztu edo arintzeko neurriei buruzko txosten bat idatzi behar da.

**5.9.- Informe sobre la viabilidad económica de alternativas y medidas**

Se aportará un informe sobre la viabilidad económica de las alternativas y de las medidas dirigidas a prevenir, reducir o paliar los efectos negativos que pudiera generar la aplicación de las modificaciones introducidas.

**6.- INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK**

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoa betez, informazio eta kontsulta moduei dagokienez, Zegamako Udalak jarduketa hauek egingo ditu:

a) Erasandako herri administrazioei eta interesatuta dagoen jendeari kontsultatzea, AASSen Aldaketa Jakinaren lehen agiriaren bitartez eta haren Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketaren bitartez.

b) Planaren lehen agiria eta haren Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketaren jendaurrean jartzea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia argitaratuz, gutxienez 45 egun emanda haiek aztertzeko eta oharrak egiteko.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira eraginpeko herri administraziotzat eta interesatuta dagoen publikotzat: erreferentzia agiri hau idazterakoan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultaturiko administrazioak eta erakundeak (agiri honetako 2. atala), eta Udalak identifika litzakeen herri mailako erakundeak (auzotarren elkarteak, herritarren foroak eta beste entitate batzuk).

**6.- MODALIDADES DE INFORMACIÓN Y CONSULTA**

En cumplimiento de lo establecido en los artículos 9 y 10 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas sobre el medio ambiente, respecto a las modalidades de información y consulta, el Ayuntamiento de Zegama realizará las siguientes actuaciones:

a) Consulta a las administraciones públicas afectadas y al público interesado mediante el primer documento de la Modificación Puntual de las NNSS y de su Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

b) Información pública del primer documento del Plan y de su Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco, disponiendo al menos 45 días para su examen y formulación de observaciones.

A efectos de lo anterior, se considerarán administraciones públicas afectadas y público interesado las administraciones y entidades consultadas por esta Dirección General de Medio Ambiente para la redacción de este Documento de Referencia (apartado 2 de este documento), así como aquellas organizaciones de carácter local (asociaciones de vecinos, foros ciudadanos u otras entidades) que pudiera identificar el Ayuntamiento.

**7.- INGURUMEN ERAGINARI BURUZKO ALDEZ AURREKO TXOSTENA**

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoa betez, AASSen Aldaketaren hasierako onespena erabaki aurretik, Zegamako Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar dio ingurumen eraginari buruzko aurre-txostena egin dezan, eta eskaera hari erantsi behar dizkio Planaren aurrerapenaren edo lehen agiriaren eskaera, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketarena, erreferentzia agiri honetako 3. atalean zehaztutako edukia duena.

**7.- SOLICITUD DE INFORME PRELIMINAR DE IMPACTO AMBIENTAL**

En aplicación de lo establecido en el artículo 17 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, con carácter previo a la aprobación inicial de la Modificación de las NNSS, el Ayuntamiento de Zegama solicitará, a esta Dirección General de Medio Ambiente, la emisión del Informe Preliminar de Impacto Ambiental, debiendo acompañar la solicitud del avance o primer documento de la Modificación y del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, con el contenido especificado en el apartado 3 de este documento de referencia.